

EKAINAK 6

Espainiako
Legebiltzarrerako
hauteskundeak

Inkestek ezer gutxi balio dutela erakutsi zuten igandean izandako Espainiako Legebiltzarrerako hauteskundeek. PSOEek beherantz egin du, baina 16 eskainu besterik ez ditu galdu eta oraindik badu gehiengo nahiko zabala. PPren gorakada nabaria izan da baina oraindik sozialistengandik urrun dago oraindik. Beste ezustea IUren gorakada apala

izan da (% 0,5 puntu eta eskainu bat), «ezkerreko boto baliagarriaren» ondorioz. CiUk ere ez du nahi adina gora egin eta CDS, espero zen moduan, Legebiltzarretik at dago. Nazionalistak eta erregionalistak, kanariarrak ezik, uste baino pattalago. Hitz bitan esanda, botoaren polarizazio handia izan da.

Bipolarizazioa izan da garaile

Gehiengo osoa galdu arren, PSOEek 18 diputatuko alde atera dio PPri

IKER ARANBURU / DONOSTIA

Laugarren aldiz jarraian PSOEek Espainiako Legebiltzarrerako hauteskundeak irabazi ditu nahiz eta gehiengo osoa galdu duen. Sozialistek bederatzi milioi boto pasatxo lortu dituzte, hau da, botoen % 38,68 (% 39,5 1989an), eta 159 eskainu (175 1989an) izango dituzte legegintzaldi honetan. Azken hauteskundeekin alderatuz, milioi bat boto irabazi ditu alderdi sozialistak.

Azken unera arte hauteskundeak irabaz zitzakeela uste zuen PPk ez du bere helburua lortu eta PSOErekiko 18 eskainutara geratu da botoen % 34,82 bilduta. Nolanahi ere, PPk igoera handia izan du aurreko hauteskundeekin konparatuz gero, hiru milioi boto gehiago (% 26tik % 34,82ra) eta 34 diputatu gehiago lortu baititu.

IU hirugarren indar politikoa bihurtu da eskainu banaketan, baina emaitza uste baino kaxkarragoak izan dira ezkerreko koalizioarentzat. IUko buruek botoen % 12ra eta 25 eskainutara hurbiltzea espero zuten arren, botoen % 9,5 (% 9,1 1989an) eta 18 eskainu erdietsi dituzte, orain baino diputatu bat gehiago.


Espektatibak bete ez dituen beste alderdia CiU izan da, legegintzaldi honetan zer esan asko izango duen arren. Roca, Pujol eta Duran Lleiden koalizioak Kataluniako lehen indar politikoa bihurtzea zuen helburu, baina sozialistek aurrea hartu diete: botoen % 32 nazionalistentzat (17 eskainu) eta % 34,7 PSCrentzat (18 eskainu).

LAU DIPUTATU KANARIARRENTZAT



CDSk orde, zitu en susmorik txarrenak bete ditu eta Legebiltzarretik at geratu da, azken unera artea Calvo Ortega bertako lehendakaria Madrileko diputatu izateko itxaropena izan zuten arren. Botoen % 7,9 biltzetik % 1,76 lortzera igaro da eta 14 diputatu eta 1,2 milioi boto galdu ditu. Hauteskunde hauetako beste garailetako bat Koalizio Kanariarra (CC) izan da, zitu en aurriskupenak beteta lau diputatu eskuratu baititu 206.000 botorekin. ERCK 1986an galdu zuen ordezkartza lortu du, 1989an baino 100.000 boto gehiago eskuratu baititu.

EMAITZAK ESTATU ESPAINIARREAN

KONGRESUA



SENATUA



J. APEZTEGIA